

PASAPORTE BERDEA, ESKOLA-SEGREGAZIOA ETA OINARRIZKO
GIZA ESKUBIDEAK URRATZEN DITUZTEN BESTE NEURRI
BATZUK ETORKIZUNEAN EZ APLIKATZEKO MOZIOA.

Larraungo biztanle-talde bat gara, azken bi urte hauetan osasun-larrialdiaren ondorioz sortutako hainbat egoerarekin kezkatuta. Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiegu senide, lagun eta bizilagunei trantze honetan sortutako egoera, sentimendu eta pentsamenduekiko elkartasunagatik, enpatiaagatik eta errespetuagatik. Oso gogorra izan da guztiontzat, gutako inork inoiz bizi izan ez duen gertaera negatibo baten aurrean baikaude. Hori dela eta, gai honen inguruko eskualdeko auzokideekin gure egunerokotasunean partekatu ditugun zalantzak, ondorioak eta aldarrikapenak adierazteko beharra dugu.

Orain arte, aditu eta erakunde ofizialek zenbait erabaki hartu dituzte, batzuk egokiak eta beste batzuk okerrak, osasun-arazo berri hau eta bere konponbideen ezagutza ezaren aurrean. Denborak eta ebidentzia zientifikoak baieztatu eta/edo ezeztatu egin dituzte gure erakundeek gauzatutako erabaki sanitario eta politikoen zati bat, beste batzuk, aldiz, oraindik ezin izan dira baieztatu edo gezurtatu, hau da, ikerketa-, saiakuntza- eta berrikuspen-prozesu baten aurrean gaude.

Osasun komunitarioa herritar guztien ongizatea dela ulertzen dugu, bizitza babestua izateko eskubide unibertsal gisa, duintasun-baldintzetan, gizaki gisa bete-betean eta behar fisiko eta psikosozial guztiak beteta garatzeko aukera emango diguna. Pasaporte berdea ezartzea, oinarri zientifiko, juridiko eta etiko argirik gabe, jauzi arriskutsua da, gure historiako beste garai ilun, totalitario eta dogmatikoak eramaten gaituna, eta hori ez da berriro errepikatu behar. Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da eztabaida-guneak irekitzea, erabaki ahal izateko zer osasun publiko nahi dugun, zer neurri ez gauden sostengatzeko prest eta zer harreman komunitario behar ditugun harreman kolektibo justu, osasuntsu eta gizatiarrak eraikitzeo.

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean oinarrituta, lege nagusi eta nahitaezko erreferentzia gisa, hona hemen gure ustez, bozkatu eta ezarri beharko liratekeen baldintzak:

- Aukera askeko ariketa batean jasotako eta onartutako tratamendu medikoen inguruko erabaki pertsonal bakoitzerako errespetua bermatzea.

- Neurri hertsatzaile, diskriminatzaile eta mehatxatzaileak gaitzestea eta debekatzea, pertsona bakoitzari bere osasunari buruzko erabakiak hartzea behartzen diotenak, bere borondatearen aurka. Beraz, pasaporte berdeak, besteak beste, ezin du lekurik izan zentzu horretan.

- Haur eta gazteentzat erabateko babesa bermatzea, gure gizateriaren baliorik preziatuena baitira. Une honetan, eta ebidentzia zientifiko nahikoaren ondoren, uste dugu ikastetxeetan pandemiaren aurreko egoerara itzultzea erabakirik onena dela, osasun arloan nahiz bio-psikosozialean premiazko baita, inolako diskriminaziorik eta segregaziorik gabe. Halaber, etorkizunari begira, ezin dira errepikatu zuzenak eta egiaztatuak ez diren neurriak. Horretarako ikerketa serioak kontuan hartzea eta dagokion denbora errespetatzea ezinbestekoa izango da ume eta gazteentzako kaltegarria izan daitekeen edozein erabaki hartu baino lehen.

- Kalitatezko osasun publikoaren defentsa aldarrikatzea. Urteak daramatzagu osasun-sisteman murrizketak eta degradazioa jasaten, hori guztia, krisi honetan nabarmenagoa izan da.

GIZA ESKUBIDEAK ETA OSASUNA LARRAUN BAILARAKO PLATAFORMA.